

Proiektua: LIFE IREKIBAI. Ibai irekiak: *Nafarroak eta Gipuzkoak partekatzen dituzten ibaien konektibitate eta habitaten hobekuntza (LIFE 14 NAT/ES/00186)*

BILERA AKTA –IREKIBAI Proiektua aurkezteko jardunaldia. Gure ibaien etorkizuna elkarrekin eraikitzea

EGUNA: 2016ko apirilaren 6a LEKUA: Bertizko Jaurerriko Parke Naturaleko jauregia HASIERA: 17:30	HELBURUA: LIFE IREKIBAI proiektua eragileei aurkeztea, eta haiekin, informazio eta parte-hartze publikorako nahiz haien ekarpenak jasotzeko prozesua hastea
--	--

Berlaratuak

	Izena	Abizenak	Organismoa	Kargua	Herria
1	Oscar	Diez de Ulzurrun Goñi	1, Maringo zubiko zentral hidroelektrikoa 2. Etxalarko jauzia 3. Etxalarko erreka 4. Lesakako Ramontxo Zentrala	Jabea	Gorraitz
2	Jorge	Teniente Vallinas	AEMS Ríos con Vida	AEMS Navarra-ko presidentea	Sarriguren
3	Manuel	Germán	ANAPAM. Asoc. Nav. Pescadores a Mosca	Bazkidea	Burlata
4	Begoña	Alberro	Mendaur -Doneztebe GURASOEN ELKARTEA		Doneztebe
5	Ana	Altzuri Lasarte	Baztango ehiztarien eta arrantzaleen kirol elkarte		Elizondo
6	Martín	Apecechea Iribarren	Baztango ehiztarien eta arrantzaleen kirol elkarte		Ornoz Mugairi
7	Joseba	Moreno Videgain	Baztango ehiztarien eta arrantzaleen kirol elkarte	Presidentea	Arizkun
8	Ana	Urtasun Idiazabal	Nafarroako Ingurumen Zientziako Lizentziatuen Elkarte		Iruñea
9	Javier	Belza Pérez	Asociación de Productores de Energía Hidroeléctrica. "URWATT" eta Olaberri zentral hidroelektrikoa (Andoain- Leitzaran)	Zuzendaritza Batzordeko kidea	
10	José Manuel	Zubillaga Muguerza	ARAITZ	Alkatea	Araitz
11	Juan Cruz	Iriarte Bañez	BAZTANGO UDALA	Zinegotzia	Elizondo
12	Jon	Telletxea Juanenea	BEINTZA-LABAINGO UDALA	Alkatea	Beintza Labaien
13	Josu	Iratzoki Agirre	BERAKO UDALA	Alkatea	Bera
14	Andres	Etxenike Iriarte	BERTIZARANAKO UDALA	Alkatea	Narbarte
15	Marga	Erdozain Azpilicueta	DONEZTEBEKO UDALA	Zinegotzia	Doneztebe
16	Miguel M ^a	Irigoyen Sanzberro	ETXALARKO UDALA	Alkatea	Etxalar
17	Unai	Loiarte Ansa	Goizuetako Udala	Alkatea	Goizueta
18	M ^a Jose	Bereau Baleztena	ITURENGO UDALA	Alkatea	Ituren
19	Lorea	Flores	LESAKAKO UDALA	Zinegotzia	Lesaka
20	Xebe	Txoperena	LESAKAKO UDALA	Zinegotzia	Lesaka
21	Amets	Inda Gorriarán	SUNBILLAKO UDALA	Alkatea	Sunbilla
22	Patxi	Urroz Telletxea	URROZKO UDALA	Zinegotzia	Urtotz
23	Imanol	Baleztena Elizalde	ZUBIETAKO UDALA		Zubieta
24	Mikel	Albisu Gómez	Baztan Bidasoa Turismo Elkargoa	Presidentea	Labaien
25	Mattari	Alzuarte Gaztelu	BKZ. Bertiz Aterpea		Narbarte
26	Luis	Launagarai	Landa Etxea: Binahia		Arraioz
27	Arantxa	Arregui Alberro	CEDERNA - GARALUR. Bortzirriak-Malerreka-Bertizarana garatzeko Agentzia		Lesaka
28	Itsaso	Tapia Alzuguren	CEDERNA - GARALUR. Bortzirriak-Malerreka-Bertizarana garatzeko agentzia	Bide berdea, teknikaria	Lesaka
29	Xabier	Santesteban	Elkargoa: Baso Ingeniari Teknikoak eta Baso Ingeniaritzan eta Natur Ingurunean Graduatuak	Lurralde dekanoa	Iruñea
30	Itziar	Almárcegui Artieda	BIOLOGOEN ELKARGO OFIZIALA		Iruñea
31	Paula	Galañena Iriarte	OIEREGIKO KONTZEJUA	Idazkaria	Oieregi
32	Noemí	López	Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa	Gipuzkoako eta Nafarroako zerbitzu burua, Ur Komisariotza	San Sebastian
33	Eva	García Balaguer	Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentua. Nafarroako Gobernua	Ingurumen eta Lurralde Antolamendurako Zuzendaritza Nagusia	Iruñea
34	Enrique	Eraso Centelles	Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua. Biodibertsitatea Zaintzeko Zerbitzua	Biodibertsitatea zerbitzuko zuzendaritza	Iruñea

35	Ana	Palacios Arellano	Ingurumenaren eta Uraren Zuzendaritza Nagusia. Biodibertsitatea Zaintzeko Zerbitzua	Ehiza eta arrantza ataleko burutza	Iruñea
36	Karmele	Areta Cebrian	Ingurumenaren eta Uraren Zuzendaritza Nagusia. Biodibertsitatea Zaintzeko Zerbitzua. Habitaten Atala	Habitat ataleko burutza	Iruñea
37	Cesar	Pérez Martín	Ingurumenaren eta Uraren Zuzendaritza Nagusia. Uraren Zerbitzua	Uraren zerbitzuko zuzendaritza	Iruñea
38	Nekane	Vizcay Urrutia	Ingurumenaren eta Uraren Zuzendaritza Nagusia. Uraren Zerbitzua	Ibaiek lehengoratzeko ataleko burutza	Iruñea
39	Pedro	Areta Morondo	EKOLUR INGURUMEN AHOLKULARITZA		Oiartzun
40	Juan	Goñi	Empresa Navarra al Natural		Narbarte
41	Carlos	Armendáriz	Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Biodibertsitate alorra	Iruñea
42	Pedro Jesús	Castillo Martínez	Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.		Peralta
43	Isabel	Leranoz	Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.		
44	Pablo	Muñoz Trigo	Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Gerentea	Iruñea
45	Luis	Sanz Azcarate	Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Irekibai proiektuaren koordinatzailea	Iruñea
46	Ana	Varela Álvarez	Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Irekibai proiektuko teknikaria	Z. Iruñea
47	Eva	Zaragüeta	Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.		Z. Iruñea
48	Gabriel	Fuentes Nieto	Ingurumen zaintza. Bidasoa-Leitzako Baso Mugaketa	Basozain nagusia	Sunbilla
49	Mikel	Mugiro	Ingurumen zaintza. Bidasoa-Leitzako Baso Mugaketa	Basozaina	Arizkun
50	Xabier	Petirena	Ingurumen zaintza. Bidasoa-Leitzako Baso Mugaketa	Basozaina	Oieregi
51	Martín	Urrutia	IES MENDAUR DBH Doneztebe	Zuzendaria	Doneztebe
52	Maite	Arzuaga	IES TOKI ONA BHI BERA	Irakaslea	Bera
53	Ines M ^a	Arocena	Irain Eskola Publikoa. Lesaka	Irakaslea	Lesaka
54	Gaizka	Aranguren	Labrit Multimedia		Iruñea
55	Juan	del Barrio Iglesias	LURRA. Asociación en Defensa de la Tierra. Nafarroako Ingurumen Kontseilua		Burlada
56	Miguel Angel	Belza	Donamariako errota		Donamaria
57	Mónica	Migueltorena	Ostaitz S.L.	Erabilera publikoari arreta	Oieregi
58	Javier	Balda Jauregi	Izokin arrantzalea		Ornoz Mugairi
59	Rafael	Echeverría Ayesa	Izokin arrantzalea		Iruñea
60	Carlos	Gallo	Izokin arrantzalea		Sangüesa
61	Imanol	Luzuriaga Jauregi	Ibaieritzeko auzokidea		Donamaria
62	Lander	Santamaría Alcocer	Ibaieritzeko auzokidea		Elizondo
63	sofia	Sapupo	Ibaieritzeko auzokidea		Doneztebe
64	Alfredo	Zugarramurdi Santesteban	Ibaieritzeko auzokidea		Doneztebe
65	Amaia	Angulo Rodeles	SIBIC. Sociedad Ibérica de Ictiología	Doktoretza tesia NUPen	Iruñea
66	Ernesto	Gainza	Berako Ehiza eta Arrantza Elkartea		Bera
67	Vicente	Garro Lanz	Berako Ehiza eta Arrantza Elkartea	Kidea	Bera
68	Lorentxo	Jaurena	Berako Ehiza eta Arrantza Elkartea	Presidentea	Bera
69	Jose Mari	Mitxelena	Berako Ehiza eta Arrantza Elkartea		Bera
70	Juan	Otamendi Lasaga	Berako Ehiza eta Arrantza Elkartea		Bera
71	Prudencio	Quiroga	Berako Ehiza eta Arrantza Elkartea	Ingurumen kidea	Bera
72	Luis	Celihueta Latorre	Nazas Arrantzale Elkartea	Idazkaria	Iruñea
73	Carlos	San Martín Ederra	Nazas Arrantzale Elkartea		Iruñea
74	Rafa	Miranda Ferreiro	Nafarroako Unibertsitatea	Ikertzailea. Zoologia y Ekologia Departamentua	Iruñea
75	Miguel Angel	Petrizan Iriarte	URBERRI ELKARTEA - Urberri arrantza elkarte	Presidentea	Iruñea

Aztergaiak

- Oieregiko Kontzejuaren ongietorria
- Nafarroako Gobernuko ordezkariaren hitzak. Eva García Balaguer. Ingurumeneko zuzendari nagusia
- Kantauriko Isurialdearen egoera. Kontserbazio Bereziko Eremuak Kudeatzeko Planak. Carlos Armendariz. Biodibertsitate alorra. GAN
- IREKIBAI Proiektua. Proiektuaren laburpena. Luis Sanz Azcarate. Uraren Atala. GAN
- Parte-hartze prozesua. Ana Varela. Komunikazio, Parte-hartze eta Prospektiba alorra. GAN

Azterturiko gaiak

- Bilera hasi da, eta Oieregiko Kontzejuak hartu du hitza, ongietorria emateko eta bertaratu diren guztiei bilerara joan izana eskertzeko.
- Ana Varelak Ingurumenerako zuzendari nagusia aurkeztu du: Eva García Balaguer.
- Eva García eskertu du IREKIBAI proiektuaren bidez etorri den aukera berria elkarrekin lanean jarraitzeko, 2007tik aurrera hainbat izen eta forotan egin den bezala, betiere azken helburua lortze aldera: ibaiak halako kalitate maila bat izan dezala, nazioartean aitorturikoa.
- Carlos Armendarizek Natura 2000 Sarea zer den azaldu du, begirada Nafarroan pausatuta, eta Kantauri aldeko Kontserbazio Bereziko Eremuak Kudeatzeko Planetan ezarritako neurriak ere aipatu ditu, horiek baitira IREKIBAI proiektuan garatu beharreko jarduketaren jatorria.
- Luis Sanzek **Life Irekibai proiektuaren** aurkezpena egin du: jarduketa eremua, aurrekariak, bazkideak, aurrekontua, aurreikusitako jarduketak, egutegia, etab. Bukatzeko, eskualdean egiten denaren funtsa azaldu du, eta lehengoratzeko ekintza batzuk ere azaldu ditu, eta zer-nolako ondorioak dituzten ingurumenean, proiektuaren bidez onura jasoko duten funtsezko espezieak nabarmenduta.
- Ana Varelak **Parte-hartze Plana** azaldu du, hots, helburuak, parte-hartze mailak, eta parte-hartze Prozesuaren faseak.

Saioan zehar honako gai hauek aztertu dira, eta galdera, iradokizun eta erantzun hauek jaso dira:

Zentral hidroelektrikoak: Planteatu da Europako politiketan kontraesanak daudela. Izan ere, zenbaitetan iduri du diru-laguntza ematen dela zentral hidroelektrikoak egiteko edo berritzeko (adibidez Armenian, eta Huelvan 23 zentral berreskuratu izana), eta proiektu honetan diru-laguntza ematen da zentralak eraisteko. *(ikusi erantzuna eranskinaren 6. puntuan)*

Horri dagokionez, iritzi batzuk horrekin kontraesanean daudela ematen du; argitu da herrialde bakoitzak bere energia-politikak dituela, eta Kantauri aldean ez direla beharrezkoak horrelako laguntzak, gaur egun maila partikularrean bakarrik eskatzen baita horrelako azpiegiturak jartzea, eta haien errentagarritasuna ere zalantzan jarri da; horregatik, aunitz ez dira erabiltzen. Era berean, adierazi da diru-laguntzak ematen direla egungo azpiegiturak ingurumen legeriaren baldintzetara egokitzeko, eta Frantzia aipatu da adibidetakoa, horrelako oztopo aunitz ezabatuko baitira, eta Frantzia da Estatuaren artean energia elektrikoan portzentajerik altuena duena (berriztagarrien artean).

Erantzunak

- Konfederazioaren ordezkariak adierazi du ez dutela Armeniako gaiaren berri, baina Espainian ez dela finantzaketarik hidroelektrikoentzat; gaia arrunt pribatua da. Egungo energia-politikan ez da beharrezkoa zentral hidroelektrikoek elektrizitate gehiago sortzea; orain, bertze fase batean gaude. Izan ere, egun ezabatzen ari diren guztiak duela urte aunitz abandonatu ziren, ez baitziren errentagarriak jabeentzat.

Uholde arriskua:

- Adierazi da presak, energia elektrikoak sortzeaz gain, uholdeen kontrako babesa ere badirela (eskatu da tailerretara etor dadila hainbat presa ezabatu ondoren Irunen izaniko uholdeen berri eman dezakeen pertsonaren bat) *(ikusi erantzuna eranskinaren 1. puntuan)*
- Elizondoko Txokotoko presak sortzen dituen uholde arazoak aipatu dira, presa horri ez zaiola ekin adierazita. Iritzi baten arabera, presa horri ez zaiola ekin, ondoko karrikako etxeak eroriko lirakeelako eraikuntzaren ezaugarriek eraginda (pagoen gainean bermatua baitago, eta ihartzen badira, arazoak sortzen dira) *(ikusi erantzuna eranskinaren 2. puntuan)*
- Doneztebe azpian ur-jauzi bat dago, eta urak herriraino bertaraino bildu egiten ditu, eta uholde arazoak

sor ditzake. (ikusi erantzuna eranskinaren 3. Puntuan)

- Berako presa eraistea komeniko litzateke, uholde arazoak sortzen baititu. (ikusi erantzuna eranskinaren 3. B Puntuan).
- Asmatu da Doneztebeko presa zaharra, haren parkearen zati bat eta trenbide zubia eraistearekin, (ikusi erantzuna eranskinaren 4. Puntuan).
- Becerroko presaren eraispnaren ondorioz, legarrak eta harriak mugiarazi dira, eta osinak bete dira.

Erantzunak

- Horri buruz, Uraren Zerbitzuko zuzendariak argitu du horixe dela presa eraistek dakartzan ondorio naturaletako bat, hau da, ibaiaren dinamika lehengoratzea, hala emari likidoarena nola emari solidoarena. (ikusi erantzuna zabala eranskinaren 5. Puntuan).

Fauna:

- 1915ean Donezteben izokina arrantzatzen zen. Osinak izokinaren habitata dira. Endarlatsa eraisten bada, izokinek hurrengo presan geldituko dute igoera, gaindiezina baita, eta iduri duen bezala, ez badute huraxe gaintzerik, atzera itzuli, edota Bidasoren nazioarteko tartean geldituko dira. Eraispnaren aldeko iritzi batek adierazi du presak eraistearen ondorioz izokin populazioa eta banaketa hobetuko direla. (ikusi erantzuna eranskinaren 7. Puntuan).
- Ez dago kolakarik, loinek arrautzak jaten dituztelako. (ikusi erantzuna eranskinaren 12. Puntuan).
- Ikusi da lanproiak presaren lokatzetan egiten duela hazkuntza (ikusi erantzuna eranskinaren 8. Puntuan).
- Amuarrainari buruz ez da deus erran, ezta aingiraz eta itsas amuarrainaz ere, eta amuarrain eta izokin birpopulaketez ere ez.

Erantzunak

- Proiektuaren koordinatzaileak adierazi du amuarraina ez dela proiektuaren “xede” espeziea, baina nolnahi ere, aurreikusitako jarduketek haren populazioak hobetuko dituztela. Adierazi du, halaber, proiektuaren baitako gaiak tailerretan aztertuko direla (proiektuaren baitako berriazko jarduketak eta espezieak), baina lotura duten gaiak ateratzen badira, horiek ere aztergai izan daitezkeela.
- Arrain espezieak Bidasoan murrizten ari dira: barboak, txipak, izokina, kolakak, amuarrainak, urteotan ingurumenean hobekuntzak izan badira ere (araztegia, emari ekologikoak ezartzea, eskalak....) (ikusi erantzuna eranskinaren 9. Puntuan).
- Arrantza debekuarekiko desadostasuna adierazi da. (ikusi erantzuna eranskinaren 10. Puntuan).
- Zalantzan jarri da presak eraistearen ondorioak ezagutzen ote diren.

Erantzunak

- Era berean, argitu da amuarraina eta itsas amuarraina espezie berbera direla (Salmo trutta); hau da, itsas amuarrainak elikagai bila migratzen du itsasora, eta gero, ibaira itzultzen da arrautzak erruteko.
- Uraren Zerbitzuko zuzendariak adierazi du proiektuan zehar jarraipenak egiten direla, ibaiko faunaren hazkuntzarako habitata hobetzen duela frogatzeko, datu zientifikoak eta helburuak erabilia, eta horiek baieztatuko dituztela zeharkako datuek ematen dizkiguten suposaketak.

Ibaian egun dauden **beste arazo batzuk** ere izan dira mintzagai:

- Ibaiaren kalitate egoera. Adierazi da badagoela arazoa Doneztebeko ur beltzen isurpenekin, euria hainbat egunez jarraian egiten duenean, eta gaineratu du iduri duela udan bakarrik kontrolatzen dela (ikusi erantzuna eranskinaren 11. Puntuan).
- Loina izurritea dago, ibaiko ohiko faunaren orde: barboak, txipak ... (ikusi erantzuna eranskinaren 12. Puntuan).

- Endarlatsako presa botatzen bada, ezkerrekoa berreraiki beharko da. (ikusi erantzuna eranskinaren 13. Puntuari).
- Adierazi da San Tiburtzioko presa gaindiezina dela. (ikusi erantzuna eranskinaren 14. Puntuari).

Parte-hartzea

- Eskatu dute argitzeko nork hartuko duen **azken erabakia**, behin parte-hartze tailerrak egin ondoren.

Erantzunak

- Gogoratzen da prozesua ez dela loteslea, hau da, prozesuan hartzen diren akordioak Jarraipen Batzordera ekarriko dira, baloratzeko eta erabakitzeko; aipatu proposamenak kontuan hartuko dira Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuak nahiz Proiektuko Zuzendaritza Batzordeak ezarriko dituzten neurrien gainean erabakitzeko, bi horiek baitira erakunde eskudunak. Hala ere, prozesuan sortzen diren proposamenak sartzeko edo kanpoan uzteko irizpideak helarazi beharko zaizkie Itzulerako Jardunaldian parte hartzen duten pertsonari eta erakundeei. Proiektuak bere egin ez ditzakeen proposamenak bilduko dira beste finantzaketa ildo batzuk ikusteko ideiarekin.

Saioa bukatzeko, gaurko saioaren leloa ekarri da gogora: “Gure ibaien etorkizuna elkarrekin eraikitzea”; denon artean hitz egin nahi dugu, irtenbideak bilatzeko eta ibaia hobetzeko. Halaber, parte-hartzaileak animatu dituzte parte-hartze prozesuan izena eman dezaten.

Eta bertzelako aztergairik ez dagoenez, bukatutzat jo da Proiektua aurkezteko jardunaldia, 2016ko apirilaren 6ko 19:40an.

ERANSKINA. SAIOAN EGINIKO GALDERENDAKO **ERANTZUNAK**, SAIOAN ERANTZUN EZ ZIRENAK.

1. Presen eginkizunak: uholdeen kontrako babes. Eskatu da baten batek konta dezala hainbat presa ezabatu ondoren Irunen gertatu zen uholdea.

Uholde arriskua ez da proiektu honen gai nagusia. Oro har, erran daiteke presa eraistek eragin nabarmena duela presaren eremuan eta presak sortzen duen ur bilduko eremuan, eta eremu horretako uholde arriskua jaisten dela.

Nolanahi ere, Irunek badu uholdeak izateko arriskua. Baina horrek ez du zerikusirik Irekibain presak ezabatzearekin. Historikoki uholdeak izan dira Irunen, eta horregatik, ARPSIs¹ barnean dago EAEn, Uholdeei buruzko 2007/60/CE zuzentarauaren faseen aplikazioaren esparruan.

2. Elizondoko Txokotoko presaren balizko ezabaketa: ondoko karrikako etxeak eroriko lirateke, eraikuntzaren ezaugarriek eraginda, pago-enbor gainean bermatuta baitaude, eta pagoak ihartzen badira, arazoak sortuko lirateke. Ez dago proiektuan aurreikusia.
3. Egungo presek sortzen duten arriskua:

- a. Doneztebe azpian ur-jauzi bat dago, eta urak bildu egiten ditu, eta Aparango industrialdean uholde arazoak sor ditzake Proiektuko gaia ez bada ere, Departamentuak horri buruzko kezka du, eta CHCren eskutik Uholdeei buruzko 2007/60/CE Zuzentzua ezartzea lantzen ari da. Halaber, udalekin lantzen ari da; Baztangoarekin, adibidez. Uraren Zerbitzuak ur-neurtegi berri bat paratu du Baztan ibaian (Erratzun), Elizondon izan daitezkeen uholdeez lehenago ohartarazteko. Ildo berean segituko da lanean, eta iradokizunak bilduko dira, proiektu berrietan sartzeko edo dagokion atalaren ohiko lan eta aurrekontuen esparruan aztertzeke.

Donezteberi dagokionez, Nafarroako ARPSIs¹ eremuen artean dago, uholde arriskua baitu. Nafarroako Gobernuak, ibaiak inguru horretan hartzen ahal dituen eremuen mapak egin zituen, BIDUR proiektuaren baitan egin ere, eta Udalen eskura daude, uholde arriskua kudeatzeko planak egin ditzaten, eta jende guztiarentzat ere badaude eskura.

- b. Komeniko litzateke lehen eraispena Berako presa izatea, herrian uholde arriskuak sortzen dituelako. Proposamena jaso da. Onesten bada, aztertu beharko litzateke nola eragiten dion kronograma aldaketak proiektuari. Hasiera batean, DFGri jakinarazi beharko litzaioke (proiektuaren koordinatzaileari), eta gero, Europako Batzordeari (LIFE), aldaketarako arrazoiak emanez, eta kronograma birplanteatuz; baina proiekturako finkatu diren helburuak lortuko direla justifikatuz, zeren, horrela ez bada, proiektuan aldaketa bat egin beharko bailitzateke.

4. Asmatu da Doneztebeko presa zaharra, haren parkearen zati bat eta trenbide zubia eraistearekin. Gure iritziz, oztopoak ezabatzeak gutxitu egiten du haren eragin-eremuko uholde arriskua.
5. Becerroko (meategia) presaren eraispenaren ondorioz, legarrak eta harriak mugiarazi dira, eta osinak bete dira. Gure iritziz, orain ibaiak berezko ibai-dinamika berreskuratu du, eta presan geldirik zeuden sedimentuak birbanatu ditu, eta ibaiaren dinamika lanean ari da, presaren ondotik zegoen ur bilduko eremuaren ordeztasunak, taulak eta osinak elkarren jarraian sortzeko.
6. Europako politiketan kontraesanak daude; presa batzuk berritzea laguntzen baitu diruz, eta diru-laguntzak ere badira beste presa batzuk botatzeko. Europar Batasuneko ingurumen politikak argiak dira, eta denek Zuzentzua eta finantza-tresnak ezagutzen dituzte. LIFE Irekibaik Batasunaren finantzaketa du, habitat eta espezieen kontserbazio egoerak hobetzea lortzeko, bai eta ibaien egoera hobetzeko ere, helburua baita bai Habitategi buruzko Zuzentzua, bai Urari buruzko esparru Zuzentzua helburuak betetzea. Nolanahi ere, ez dugu sakon ezagutzen Europako energia politika guztia, eta are gutxiago, finantzatzen ote dituen Armeniakoa bezalako proiektuak (herrialde hori ez da Europar Batasuna), baina seguru iritzi hori helaraz diezaietkeela arloan eskumenak dituzten Batasuneko agintariengana.
7. Endarlatsako presa ezabatzea: izokina nazioarteko tartera itzuliko da, egungo osinak ezabatzearen ondorioz eta uretan goiti dagoen presa topatzean. Orain arte erran dezakegu, Bidasoren beheko tartean presak botatzeko eta oztopoak iragazkertzeko ekintzak egiten direnetik, izokina iristen dela lehen iristen ez zen tokira, eta presa batzuetara azkarrago iristen dela lehen bano. Teorikoki, Endarlatsa eraitsi ondoren, izokina lehenago iritsiko da Irun-Endara zentralako presaraino, eta ezin badute igro, ziurrenera, Montoiako putzuan babestuko dira edota Endarlatsako presako egungo ur bilduan sor daitezkeen osin berrietan.

¹ ARPSIs: Áreas con riesgo potencial significativo de inundación



Irekibai



8. Itsas lanproiak Endarlatsako presako lokatzetan egiten du hazkuntza. Itsas lanproiak ura mugimenduan behar du errunaldirako, eta gero, sedimentu mehez eta legarrez osaturiko eremuak arrautzak uzteko. Oro har, ia espezie guztientzat bezalaxe, presak ezabatzearekin, ur bilduko habitatak birnaturalizatzen dira, eta mesohabitat egokiagoak sortzen dira hazkuntzarako. Baina, salmonidoek baino ahalmen txikiagoa duenez ibaia igotzeko, presek are muga handiagoa jartzen diote, eta gutxiago iristen da ibaiko toki altuagoetara, eta aunitz mugatzen da espeziarendako irisgarria den habitat egokiaren disponibilitatea. Hala ere, baliteke isats lanproiak erabiltzea eskura duen habitata, bai eta ur bilduko leku batzuk ere, horixe baita une honetan Nafarroan duen habitataren zatirik handiena.
9. Arrain espezieak Bidasoan murriztea: barboak, txipak, izokina, kolakak, amuarrainak, urteotan ingurumenean hobekuntzak izan badira ere (araztegia, emari ekologikoak ezartzea, eskalak jarri dira....) 2007tik honat, izokin populazioak hobera egin du, eta Nafarroako Gobernuak egiten dituen arrantza laginketek erakusten dute aipatutako espezie guztiak Bidasoan daudela.
10. Desadostasuna arrantza debekuarekin. Ez da proiektu honetako gaia, helburua baita espezieen eta ur masen kontserbazio egoera hobetzea. Proiektuko jarduketan ondorioz, hobetu daiteke arrantza debekualdian sarturiko arrain espezieen populazioen egoera, izokinarena, batez ere, hori proiektuko xede espeziea izaki. Dena dela, proiektuaren azken helburua kontserbazio egoera hobetzea da. Nafarroako Gobernuak, urtero, laginketak egiten ditu arrain populazioen egoera jakiteko, eta laginketa horien bidez, ekintzen ondorioak aztertuko dira. Dena dela, prozesuan planteatu daiteke parte-hartzaile gehienei interesatzen ote zaien parte-hartze prozesuaren II. fasean gaia aztertzea, baina oso argi utzi behar da hori ez dela proiektuaren helburua, eta horren ondorioa dela Nafarroako arrantza politikaren birplanteamendua eztabaidarako irekitzea; eta horrek proiektuarekin duen lotura bakarra da izokin populazioak hobetzea espero dugula (espeziea kontserbatzen saiatzen baikara, aldi berean huraxe arrantzatzeko).
11. Isurpenak ibaira Donezteben, ur zikinak araztegitara iritsi gabe; euri aunitz egiten duenean, batez ere. Ur beltzen sareak ibaira isurtzea ohiko samarra izaten da araztegitetan; euri jasak izaten direnean, batez ere. Informazioa NILSARI helaraziko zaio, hori maiz gertatzen ote den baloratzeko eta ibairako eragin garrantzitsua izan ote daitekeen jakiteko.
12. Loina izurritea dago. Kolaken arrautzak jaten dituzte, eta horren ondorioz, kolaka desagertzen da. Ezin da loina arrantzatu. Loinek jaten dutenari buruzko azterlan zientifikoek erakusten dute dieta begetarianoa duela, eta batez ere, algak jaten dituela. Izan ere, ahoa behe aldean du eta egokitua dago harkaitzei finkaturiko algak arraspatzeko. Espezie taldekoa da, eta batzuetan, multzo handia osatzen ditu.
13. Endarlatsako presa ezabatzea: Ezkerraldea berreraiki beharko da, presatik geltoki zaharrerraino. Presa eraisteko proiektuan aurreikusitakoaren arabera, bi ertzetan babesak paratuko dira. Baina, diseinatu diren babesak ez dira aipatu eremuraino iritsiko, egungo presak sortzen dituen uholde arazoek higatzen duten eremuraino. Ibaiertz horretako higadura presa eraitsi aurrekoa da, presa bertan izateak eragindakoa; beraz, a priori, ezin da proiektuan sartu, jarduketa hori ez baitator bat proiektuko ingurumen arloko lehengoratzearen ildoarekin.
14. San Tiburtzioko presa gaindiezina (Arrizurriaga). Oztopoen inbentarioan hauxe ageri da: "Igotzeko gailua nekez gainditu daiteke. Gailuak sarrera meharra du eskalan sartzeko. Eskalaren ondoan, paraleloan jarrita, arrapala bat dago, eta azken jauziak 2 m ditu".